



37. fitxa: Ikerketa eta laguntza teknikoko zentroak

TRANSFERITU BEHARREKO GAIAREN/ZERBITZUAREN AZALPEN LABURRA

Egitateen bidez, hau da, antolaketa-arauak (577/82 Errege Dekretua eta 1985eko urtarrilaren 25eko Agindua) asaldatu gabe, *“mutazio organikoa”* egin da Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalan. Horrek eskualdatze-fitxa honetan egiten den transferentziari (Barakaldoko Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroa) eragin diezaioke, egiteko dagoen eskualdatze gisa desagertzeraino.

Mutazio hori gertatu izan ez balitz, 1985ean egin zen eskualdatzea (Laneko Segurtasun eta Higieneko probintzia-kabineteena) osatzea izango litzateke kontua, EAEko (Barakaldoko) Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroa transferituz. Zentro horrek garatzen ditu probintzia-kabinete teknikoak koordinatzeko eginkizunak, bai estatu-eremuko programak betearazteko unean, bai, beren erantzun-gaitasuna gainditzen duten arazoak ebazte aldera, kabinetei laguntza teknikoa ematean (577/1982 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura eta eskumenak arautzen dituen, 8. artikulua).

Aurrerago azalduko den bezala, erregelamenduzko arauak aldatu ez diren arren, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionaleko organoen izendapenean aldaketa egin dela ikus daiteke, ez baita *“Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentro”* izendapena ikusten Madrileko, Bartzelonako, Sevillako eta Bilboko unitateetan, “zentro nazional” esaten baitzaie. Horren ondorioz, beren izaera juridikoa aldatu egin da, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren lurralde-organo izatetik erakunde autonomo horren organo zentral izatera igaro dira-eta (577/1982 Errege Dekretuaren 3. artikulua).

Horrela, bada, 1986ko martxoaren 14ko BOEn ikus daiteke dagoeneko izendapen-aldaketa hori, 1986ko martxoaren 7ko Ebazpenean. Ekonomia eta Ogasuneko idazkariordearena da hori, eta 1986ko otsailaren 21eko Ministro Kontseiluaren erabakia argitaratzea agintzen du. Erabaki horretan, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala erakunde autonomoko lanpostuei dagozkien osagarri espezifikoak finkatzen dira. Beste batzuen artean, unitate organiko hauen izendapena jasotzen da lanpostuen katalogoan:

Bartzelonako Lan Baldintzen Zentro Nazionala. Madrileko
Teknologia Berrien Zentro Nazionala. Sevillako Babes
Birtarteko Zentro Nazionala. Bilboko Makineria

Egiaztatzeko Zentro Nazionala. 1989ko urriaren 26ko Ebazpenean, gai berari buruzko aipamen bera jasotzen da (1990eko martxoaren 20ko BOE).

Horrela, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura desagertu egiten da Madrilako, Bartzelonako, Sevillako eta Bilboko ikerketa eta laguntza teknikoko zentroei egiten zaien aipamena (Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura arautzen duten errege-dekretuan eta aginduan jasotzen dira lau zentro horiek).

ESTATUAREN ETA EAE-REN ESKUMEN-TITULUA

Konstituzioaren 149.1.7 artikulua: Estatuaren eskumen eskusiboa laneko legeriaren arloan, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura. Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua: Autonomia-erkidegoak dauka lanari buruzko legeria betearazteko eskumena, bere gain hartuz lan-harremanen inguruan Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, baita, Estatuaren goi-inspekzioarekin batera, lanari buruzko legeak betearazteko zerbitzuak eratzeko, zuzentzeko eta babesteko ahalmena ere, langileen kualifikazioa eta hezkuntza osoa bultzatu daitezkeen lan-baldintzak gizartearen aurrerabide eta aitzinamenduari egokitzen saiatuz.

TRANSFERITU BEHARREKO ZERBITZUAK DITUEN ESTATUKO ORGANOA

Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizaterako Institutu Nazionala (Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari atxikitako erakunde autonomoa)⁹.

ARAUDIA

9

703/2017 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta azaroaren 11ko 424/2016 Errege Dekretua, ministerioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzekoa, aldatzen duena.-

(Zioen azalpena) «Era berean, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren izendapena eguneratzen du Errege Dekretuak, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin gero eta sentibilizatuago dagoen gizartearen eskariari (gizartearen ongizatearen ezinbesteko zatizat jotzen baititu laneko segurtasuna eta osasuna) eta urriaren 1eko 40/2015 Legeari egokitzeko xedez».

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizaterako Institutu Nazionala, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari atxikitako erakunde autonomoa.

1. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak izen hau hartu du: Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizaterako Institutu Nazionala, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari atxikitako erakunde autonomoa.

2. Legeetan edo erregelamenduetan Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalari egiten zaizkion aipamenak Laneko Segurtasun, Osasun eta Ongizaterako Institutu Nazionalari (Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari atxikitako erakunde autonomoari) egiten zaizkiola ulertuko da.

36/1978 Errege Lege Dekretua, azaroaren 16koa, Gizarte Segurantzaren, osasunaren eta enpleguaren kudeaketa instituzionalari buruzkoa. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala sortzea (5.4 artikulua).

577/1982 Dekretua, martxoaren 17koa, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura eta eskumenak arautzen dituena.

1985eko urtarrilaren 25eko Agindua, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioarena, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura organikoa garatzen duena.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (8. artikulua).

255/1985 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegora laneko segurtasun eta higienearen esparruko zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

43/1986 Dekretua, urtarrilaren 28koa, laneko segurtasun eta higienearen arloan Transferentzien Bitariko Batzordeak 1985eko azaroaren 28an hartutako erabakia argitaratzea onesten duena.

ESKUALDATZEAK BESTE ERKIDEGO BATZUEI

Ez da halakorik izan.

TRANSFERENTZIAREN BALORAZIOA, ESTATUTUAREN GARAPENARI DAGOKIONEZ

Euskal Autonomia Erkidegoko (Barakaldoko) Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroaren kudeaketa eta administrazioa lan-eremuan gauzatzen da. Autonomia-erkidego honek eskumen betearazleak dauzka eremu horretan, eta ezinbestekoa da erakunde autonomikoek kudea ditzatela eskumen horiek, lan-eremuan horien erabateko dimentsioa lortu nahi bada.

Autonomia-erkidegotik kanpo kokatutako zerbitzuei eta kabineteei eman behar zaizkien laguntza-zerbitzuak zerbitzu eta kabinete horien titularrak diren autonomia-erkidegoekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenekin bat eginez emango dira.

Zerbitzua lurraldez gaindikoa denerako oharra

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 8. artikulua eta 577/1982 Errege Dekretuaren 2. artikulua Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalari esleitzen dizkieten eginkizunen balorazioa albo batera utzita, eta, beraz, baita zerbitzuen zerrendaren eta web-orrialdearen edukia bazter utzita ere, eginkizun horietako batzuk gehiegizkotzat jo baitaitezke eskumen-banaketari dagokionez (izan ere, izaera guztiz betearazlea duten ekintzak dira), eta transferentzia honen planteamendu zuzena egiteko xedez, Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentro izendatutako enpresa egungo egoera juridikoa eta antolaketari dagokiona aipatzea komeni da.

Azaroaren 16ko 36/1978 Errege Dekretuak zentro horiek sortu ondoren, martxoaren

17ko 577/1982 Errege Dekretuak arautzen ditu Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala erakunde autonomoaren egitura eta eskumenak. Xedapen horrek jasotzen ditu, hirugarren artikuluan, berori egituratzeko organoak. Hauek dira:

Organo zentralak:

Institutu Nazionaleko Zuzendaritza. Kontseilu

Nagusia

Laneko Segurtasun eta Higieneko zentro nazionalak

Lurralde-organoak:

Ikerketa eta Laguntza Teknikoko zentroak

Probintzia-kabinete teknikoak.

Organo zentralei dagokienez, honako hau dio 7. artikulua: *“Los Centros Nacionales de Seguridad e Higiene en el Trabajo, actualmente en número de dos, realizarán, con ámbito nacional, las funciones que la Dirección del Instituto les confiera o delegue, desarrollando técnicas especializadas de información y documentación, homologación y normalización, medio ambiente y ergonomía”*. Xedapen horrekin bat etorritik, 1985eko urtarrilaren 25eko Aginduak, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ministerioarenak, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura organikoa garatzen duenak, 7. eta 8. artikuluetan aipatzen du zeintzuk diren Laneko Segurtasun eta Higieneko bi zentro nazionalak. Bi zentroek dute egoitza Sevillan, eta izendapen hau daukate bi artikuluhorietan: *“Centro Nacional de Información y Documentación”* da bata, eta *“Centro Nacional de Medios de Protección”* bestea.

Bestalde, eta lurralde-organoen edo organo periferikoen eremuan jada, hau xedatzen du 577/1982 Errege Dekretuaren 8. artikulua 1. zenbakiak: *“Los Centros de Investigación y Asistencia Técnica realizarán, en el ámbito geográfico que reglamentariamente se determine, funciones de coordinación entre los Servicios Centrales del Instituto y los Gabinetes Técnicos Provinciales, en materia de ejecución de programas de ámbito nacional y de prestación de apoyo técnico a los Gabinetes para la resolución de problemas que excedan de su capacidad de respuesta”*. 2. zenbakiak, berriz, hau zehazten du: *“Existirán cuatro Centros de Investigación y Asistencia Técnica ubicados en Madrid, Barcelona, Bilbao y Sevilla”*.

1985eko urtarrilaren 25eko Aginduaren 9. eta 10. artikuluetan garatzen da erregelamenduzko aurreikuspen hori. Horietan, hainbat unitatetan egituratzen da Institutu Nazionala, eta dagokion eremu geografikoa esleitzen dio Madrileko, Bartzelonako, Sevillako eta Bilboko Ikerketa eta Laguntza Teknikoko zentro bakoitzari, koordinazio- eta laguntza-lanak egin ditzan.

Bada, autonomia-erkidego hauen eremuan kokatutako probintzia-kabinete teknikoak esleitzen zaizkio Bilboko Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroari, horietan egin ditzan koordinazio- eta laguntza-eginkizunak: Euskal Autonomia Erkidegoa, Asturias, Kantabria, Errioxa eta Nafarroa (10.d artikulua).

Azkenik, hau ezartzen du Errege Dekretuaren 8. artikulua: *“A los Gabinetes Técnicos Provinciales les incumbe la ejecución de las competencias del Instituto en el ámbito provincial”*.

Transferentzien Bitariko Batzordearen 1985eko azaroaren 28ko akordioak gauzatu zuen Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren probintzia-kabinete teknikoen esparruan Estatuak zituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeko prozesua, eta autonomia-erkidego horrek bere gain hartu zituen kabinete horien eskumenak, 577/1982 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat eginez (577/1982 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura eta eskumenak arautzen dituen, *“zeintzuen xedea den Institutuaren eskumenak probintzia-eremuan betearaztea”*) (B atala).

Hau adieraztera mugatzen da Bitariko Batzordearen akordioa: *“Laneko segurtasun eta higienearen arloan Estatuak Administrazioak Laneko Segurtasun eta Higieneko probintzia-kabinete teknikoen bidez egiten zituen eginkizunak transferitzen dira”*, eta, horretarako, *“Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzen dira Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren probintzia-kabinete teknikoak Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, zeintzuen xedea den Institutuaren eskumenak probintzia-eremuan betearaztea”*.

Hala, eskualdatze-akordioak ez ditu aipatzen 1985eko urtarrilaren 25eko Aginduaren 10.d) artikuluko aurreikuspenaren arabera Barakaldoko Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroaren bidez garatu behar diren lankidetzak- eta koordinazio-lanak.

Hala ere, Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioak berariazko aipamena egiten dio eskualdatu diren lokalen ondoko lokaletan (Gurutzetan-Barakaldon) dagoen Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroari.

Zentzu horretan, akordioaren C atalean, eskualdatzen diren ondasunei, eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, berariazko aipamena egiten zaio Bilboko (Barakaldoko) Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroari, hau adieraztean: *“Gurutzetan-Barakaldoko eraikineko zerbitzuei dagokienez,*

1.zenbakia duen zerrenda erantsiarekin batera dagoen akordioak arautzen du horien erabilera eta eskualdatzea”. Zerrenda horretan, hainbat lokal eta zerbitzu *“Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroarekin eta Administrazio Zentralarekin”* batera erabiltzeko

adostu den formula banakatzen eta zehazten da (akordioaren 6. atala).

EA Eren akordioan ez bezala, urriaren 15eko 2947/1982 Errege Dekretuak, Laneko Segurtasun eta Higieneko kabinete teknikoaren esparruko zerbitzuak Estatutik Kataluniako Generalitatera eskualdatzeari buruzkoak, berariazko aipamena egiten dio, B.2 atalean, administrazioen arteko lankidetzari, hau adierazten duenean:

2. Por medio de un convenio entre el Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo y el Departamento competente de la Generalitat de Cataluña se establecerán las bases de cooperación entre ambos, en relación con el Centro de Investigación y Asistencia Técnica de Barcelona.

lido berean, arlo honetako eskualdatzea apirilaren 11ko 898/1986 Errege Dekretuaren bidez egin zitzaion Nafarroako Foru Komunitateari; beraz, EA Erako transferentzia egin eta Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura garatzen duen ministerio-agindua onartu ondoren. Bada, Nafarroako eskualdatzeak berariazko aipamena egiten dio bi administrazioen arteko lankidetzari, hau adierazten duenean, 4. zenbakian:

a) Por medio de un Convenio entre el INSHT y la Administración de la CRFN se establecerán las bases de cooperación entre ambos.

b) El INSHT, a través de los Centros Nacionales de Investigación y Asistencia Técnica a que se refiere el Real Decreto 577/1982, de 17 de marzo, prestará a la CFN el apoyo técnico necesario para el ejercicio de las funciones del Gabinete Provincial que se traspasa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, onartu arte, 8. artikulua Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala aipatzen baitu, ez zaio aipamen garrantzitsurik egiten erakunde autonomo horri. Legeak honela definitzen du Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala: “*Órgano científico técnico especializado de la Administración General del Estado que tiene como misión el análisis y estudio de las condiciones de seguridad y salud en el trabajo, así como la promoción y apoyo a la mejora de las mismas*”. Horretarako, “*establecerá la cooperación necesaria con los órganos de las comunidades autónomas con competencia en esa materia*”. Bestalde, erakunde horren eginkizunak zerrendatzen ditu. Bertan, administrazio publiko ezberdinen arteko koordinazio-lanak nabarmentzen dira, bai eta Europar Batasuneko erakundeen aurrean duen erreferentzia nazionala ere.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Lege horrek ez dio inolako aipamenik egiten erakundearen barruko antolaketari; hortaz, oso-osorik eusten zaio bere egitura funtzional eta antolaketakoari, eta indarrean jarraitzen dute 577/1982

Errege Dekretuaren 7. eta 8. artikuluek eta 1985eko urtarrilaren 25eko Ministerio Aginduaren 7., 8., 9. eta 10. artikuluek.



Dena dela, erregelamenduzko arau horiek aldatu ez badira ere, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalako organoen izendapenean aldaketa egin dela ikus daiteke, ez baita "*Centro de Investigación y Asistencia Técnica*" izendapena ikusten Madrileko, Bartzelonako, Sevillako eta Bilboko unitateetan, "Centro Nacional" esaten baitzaie. Horren ondorioz, beren izaera juridikoa aldatzen da, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren lurralde-organo izatetik erakunde autonomo horren organo zentral izatera igarotzen dira-eta (577/1982 Errege Dekretuaren 3. artikulua).

Horrela, bada, 1986ko martxoaren 14ko BOEn ikus daiteke dagoeneko izendapen-aldaketa hori, 1986ko martxoaren 7ko Ebazpenean. Ekonomia eta Ogasuneko idazkariordearena da hori, eta 1986ko otsailaren 21eko Ministro Kontseiluaren erabakia argitaratzea agintzen du. Erabaki horretan, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala erakunde autonomoko lanpostuei dagozkien osagarri espezifikoak finkatzen dira. Beste batzuen artean, unitate organiko hauen izendapena jasotzen da lanpostuen katalogoan:

Bartzelonako Lan Baldintzen Zentro Nazionala. Madrileko
Teknologia Berrien Zentro Nazionala. Sevillako Babes
Bitartekoen Zentro Nazionala. Bilboko Makineria
Egiaztatzeko Zentro Nazionala.

1989ko urriaren 26ko Ebazpenean, gai berari buruzko aipamen bera jasotzen da (1990eko martxoaren 20ko BOE).

Horrela, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egituran desagertu egiten da Madrileko, Bartzelonako, Sevillako eta Bilboko ikerketa eta laguntza teknikoko zentroei egiten zaien aipamena (Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren egitura arautzen duten errege-dekretuan eta aginduan jasotzen dira lau zentro horiek).

Transferentzia Euskal Autonomia Erkidegora egin eta hamar urtera, 934/1995 Errege Dekretua onartu zen 1995eko ekainaren 9an, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren probintzia-kabinete teknikoaren arloan Estatuko Administrazioak zituen eginkizunak eta zerbitzuak Madrileko Komunitateari eskualdatzeari buruzkoa. Eskualdatze-akordio horrek berariazko aipamena egiten dio administrazioen arteko koordinazioari, baina ez da Kataluniako Autonomia Erkidegoari eta Nafarroako Foru Komunitateari egindako eskualdatzeetan jasotzen dena bezalakoa, ez baitu Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroaren irudia hartzen, Zentro Nazionalena baizik, D.a) atalean hau adierazten duenean:

El Instituto, a través de los Centros Nacionales de Condiciones de Trabajo de

Barcelona, de Nuevas Tecnologías de Madrid, de Medios de Protección de Sevilla y de Verificación de Maquinaria de Baracaldo, prestará a la Comunidad Autónoma el apoyo técnico necesario para el ejercicio de las funciones de los Gabinetes Provinciales que se traspasan.

Garai bertsuan beste autonomia-erkidego batzuetara egindako eskualdatzeek aipamena egiten diote administrazioen arteko lankidetzari, Madrileko Komunitatekoaren berdin-berdina (guztietarako, 1902/1996 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Kantabriako Autonomia Erkidegorako transferitzeari buruzkoa, D.a) atala).

Bestalde, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren web- orrialdeak, xedea eta eginkizunak azaldu eta gero, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 8. artikuluan zerrendatuta dagoena hitzez hitz hartu gabe, antolaketa-egitura irudikatzen du, eta Zerbitzu Zentralen ondoan irudikatzen ditu lau “zentro nazional” hauek, nazioko eta nazioarteko ordezkaritza-eginkizunekin, jarduera tekniko eta espezifikotarako:

Teknologia Berrien Zentro Nazionala (Madril). Lan

Baldintzen Zentro Nazionala (Bartzelona). Babes

Bitartekoen Zentro Nazionala (Sevilla).

Makineria Egiatzatzeko Zentro Nazionala (Bizkaia).

Bizkaiko Makineria Egiatzatzeko Zentro Nazionalari buruzko atalak “Centro Nacional del INSHT” kalifikatzen du hori, eta, hortaz, erakundearen organo zentraletako bat dela dio. Hau adierazten du web-orrialdeak:

En su calidad de Centro Nacional del Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo (INSHT), el Centro Nacional de Verificación de Maquinaria (CNVM) participa en el desarrollo de las funciones, actividades y tareas generales del Instituto.

Además tiene asignadas líneas específicas en los siguientes campos de actuación:

En el campo de seguridad de las máquinas y equipos de trabajo, investigación y apoyo técnico dirigido a la integración de la seguridad en el diseño y a la utilización segura de los equipos de trabajo.

En el campo de la metrología de agentes químicos, investigación, desarrollo y validación de metodologías para evaluar la exposición laboral a agentes químicos y desarrollo de herramientas para la calidad de las mediciones.

Lau zentro nazional horien kalifikazioaren inguruko zalantzarik sortzen bada, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren 2015/2018 Zerbitzuen Zerrendak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Idazkariordetzaren 2014ko azaroaren 26ko Ebazpenaren bidez onartutakoa hori, hau adierazten du 9. orrialdean: “*Su estructura orgánica, según el Real Decreto 577/1982, se compone*



de: *Órganos Centrales (Dirección, Consejo General y Centros Nacionales) y Territoriales (Gabinete Técnico de Ceuta y Gabinete Técnico de Melilla), y se desarrolla por Orden de 25 de enero de 1985*". Ikus daitekeen bezala, Ikerketa eta Laguntza Teknikoko zentroak ahazten ditu lehen azaldutako araei egiten dien aipamenean, eta zentro nazional bihurtzen ditu Ikerketa eta Laguntza Teknikoko zentroak, laurak. Horrela, bada, lurralde-organoak (beraz, "*transferitu daitezkeenak*") izatetik organo zentral izatera igarotzen dira.

Egitateen bidez, hau da, antolaketa-arauak (577/82 Errege Dekretua eta 1985eko urtarrilaren 25eko Agindua) asaldatu gabe, "*mutazio organikoa*" egin da Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionallean. Horrek eskualdatze-fitxa honetan egiten den transferentziari (Barakaldoko Ikerketa eta Laguntza Teknikoko Zentroa) eragin diezaioke.